

KOLABORAZIOAK

TXILLARDEGI / Hizkuntzalari eta idazlea

UEU: 25 urte

Pragmatismoaren aitzakian, Unibertsitate errejionak hispano-frantsesen lokatzean «errebelatu» gara

UDAKO Euskal Unibertsitatearen XXV. urtemuga dela-ta, niri ere zerbait esatea bide dagokit. Eta hona hemen ene apurra.

Gauza bat azpimarratu behar da aurrenik: UEU-a frankismoaren urteetan jaio zela. Honetxek azaltzen du, besteak beste, UEU Iparraldean sortu izana; eta deserriturik (edo «iparraldeturik», barka hitza) bizi ginenon partea.

Eta berau ere, orduko giro hartan kokatzeko, katalanekin bateratsu gertatu zela aitortu behar dugu: katalanak izan baitziren aintzindari.

1969an Pradan sortu zen Unibertsitate d'Estiu delakoa, Rossellón, Ipar Kataluan; Canigü sakratuaren magalean. 80 lagun elkartu ziren han, eta geroko Unibertsitate katalanaren oinarriak ipini zituzten.

Handik urtebetera, 1970ko uztailean, Baionan. Ipar Euskal Herrian, gauza bertsua egitea erabaki genuen; lehenengo aldiz, aste oso batez unibertsitate mailako hitzaldi mordo bat antolatu, eta euskara hutsez.

Eredua Pradan izan genuela ez da zalantzazkoa; UEU-ren profeta izan zen Karlos Santamariak berak deplauki aitortua baitu.

Eta Santamariarekin batera, du darik gabe, bi ipartar aipatu behar dira: Jean Haritxelhar eta Piarres Xarriton.

Hasera hartan nahas-mahas hitzaldi horiek antolatzea aski zitzaigun (sobera ere bai!). Iritsi berria nintzen ni Bruselatik; eta Txekoslovakian kasoaz mintzatu nintzela oroitzen naiz. Praha hiria luzaz alemanez ibili ondoren, txekierara bihurtu baitzuten bertako abertzaleek. Bageneukan euskaldunok horretan zer ikasirik. Eta huraxe izan zen UEU-aurre hartako ene baitaioa.

Narbaiz, Lafitte eta Lekuona apaiz zaharren ondoan, gazte laiko batzuk agertu ginen Baionara: Gurutz Antsola, Martxel Aizpurua, «Beltza», Jose Luis Lizundia, ni neu (orduun neure berrogeietan!). Baita garai hartan apez zeuden beste euskaltzale mordo bat: Torrealdai, Xalbador Garmendia, Azurmendi... 1970 eta 1971ko udetan elkartuak.

Ohar bat irakurle gazteen zerbitzutan: Burgosko Epaiaketa famatua 1970ko abenduan gertatu zen.

Hazia ereina zen. Eta 1973ko abuztuan Donibane-Lohizunen, Ravel Lizeoan, UEU jaio zen. Hara agertu ziren, **pratik** oso, Santamaria, Haritxelhar eta Xarriton, «umearen gurasoak». Baina baita geroko urteetan UEUren garrari eutsi ziotenak ere: Harluxet, Joseba Intxausti, Lizundia, Irigoien, Patxi Altuna, Davant, eta abar. Eta, batez ere, eta egiaeren ohoretan, gaur Unibertsitate ofizialetik kanpora bota duten Jose Ramon Etxebarria.


Ondoko urtean, 1974an, 110 ikasle bildu ziren Donibanen. Eta oinarriko bi talde etorri ziren Hegaldetik: Elhuyar taldea Donos-

tiatik, Luis M. Bandres eta Mikel Zalbide-ren eskutik; eta Leioako Kultur Mintegia Bizkaitik, Jaxinto Iturbe eta Joserra Etxebarriarene-tatik.

1975ean UEUren irakasleku Uztaritzeko Landagoien etxe ederrera aldatu zenean, jautzia emana zegoen. Klaseak sailka antolatu ziren; eta UEUak ondoko urteetan Iruñeko Larraona-enean atxiki duen moldea hartu zuen.

Franco 1975eko azaroan hil zen, bai; baina 1976ko UEUa Uztaritzen gertatu zen hala ere. Antolatzaile eta kudeatzaile nagusi, baxenabartar batek bere eskuetan hartzen zuelarik: Manex Goienetxe.

1977an, horretara, UEUak bere saio nagusia Iruñean ospatzea erabaki zuelarik, emana zen jautzia.



SEMAFORO GORRIA

Xabier AMURIZA

Hogei urte

LEHENGOAN, EGINen hogei urtegarrena irakurtzean, karranpada baino zartada handiagoa sentitu nuen: Ezustea, ikara, larritasuna... ez dauka definitziorik. Seguruenik, subkontzientea deritzon munstro begigabe horrek esplikatzeko baleki (jakin behar luke, bera baldin bada denaren esplikazio), esango zuen: «Orduan baino hogei urte zaharrago nauk? Orduan zenbat falta zaidak munduan? To! Ez al diok, ba, heriotzaren hurbiltasuna itxaropenaren garantaia dela? Bai, bai, baina hogei urte! Ez, ez. Ez da hori. Ez dira ohartu gabe joan, baina joan egin dira. Ez al diok, ba, urte baten eginkizunik ederre-na hurrengoari txanda ematea dela? Eta honelaxe, ez delakoan badelakoan, ez irauango bai irauango, hogei tako = zartako gainean, hi! Eta orduan baino osasuntsuago, sasi guztien azpitik eta laino guztien gainetik. Ez zen erraza! Orainxe uler-

tzen dut natur legea, indartsuek bakkirik irauten dutena...».

Iso! Moztu hori! Eskerrak subkontzientek hizketan ez dakien, zeren bestela nola laketuko ginateteke geure buruaren uestzko misterioan, behar bada dena sinpletasun etzeusa besterik ez bada? Ez al da ezjakintasuna izango harridura guztien motore? Baina hogei urterena egia da. Arrazoi nagusia beharbada sortzaldiko ilusio hura, mugida indartsu hura izan daiteke. Gero, sorrera jaiotza bilakatu zenean, etengabe zalantza abiatu zen. Iraungo ote du

urtebetean? Lehen urtegarrena ospatu zen eta galdera berdintsua airean. Bigarrena beteko ote du? Greba alu bat ere izan zen, gogoan al duzue? Halako barne-kolpe bat, EGINen norabidea «zibilizatu» nahi izan zuen kasta batena. Azkenean egunkariak berean irauu zuen eta konspiratzaileek euren itzala aurretik zutela aldegin behar izan zuten.

Geroztik ere ez zen kinka larririk faltako, baina sorkuntzako indar hark sasoiari diratu, nonbait, eta hogei urte, hi! Nerabazaroko korapiloak askaturik, lehen gaztaroko

Martin Orbe apaizak hartu zuen bere gain Euskal Unibertsitatearen ardura; eta eginkizun zail horretan irauu zuen luzaz, ondoko urteetan Baleren Bakaikoak eta Inaki Irazabalbeitiak urrats berriak eman arte.

Urte askotan Hizkuntzalari-ta alo-rrean ari izatea tokatu zitzaidan niri. Baina ene ikastaldirik famatuena (Irazabalbeitiak berriki gogoratu duenez) txinpantzeen mintzamenari buruz eman nuena izan zen. Garai hartan oso modan zeuden Gardner-tarren ikerlanak eta «Washoe» txinpantze kumearen balentriak. Eta huraxe kondatu nuen. Ikasleek amorrazio pittin batez entzun zituzten albiste kezkarri hatak. Berriki hila den Victor Sanchez Zavala irakaslearekin mintzatu nintzen Zorroagan horretaz handik urte batzuetara. Eta orain, «ya no se lleva...» Badakizue.

UEU, ene ustez, urrats historikoa izan da euskararen normalkuntzan; are Euskal Herriaren beraren normalkuntzari buruz ere. Eta beste 25 urte (gehiagoz ere bai, itxura denez!) egiteko funtsezkoa izango du gure nazioaren eraikuntzan.

UEUak helburu hirukoitz hau hartu zuen gidari: Unibertsitate nazionala, euskalduna eta herriarra eraikitzea.

Gaur ditugunak, UPVa barne, ez dira UEU hirukoitz horretan sartzen. Noski, Esparru-batasunaren helburua, ahaztua ere badago. Euskalduntasunarena, erabat maingui; eta Errektoregitik beretik datozen plan berriek, areago mehatxatua. Eta herriartasuna (funtzionariozaren kontra) jarrera, irakasle/ikasle multxoan zatikeriak, klase zapalduen aldeko kezka, etab... aipatu ere ez da behar.

UEUren helburu hirukoitza ia-ia 1973an bezain urrun gelditu zaigu. Pragmatismoaren aitzakian, Unibertsitate errejional hispano-frantsesen lokatzean «errebelatu» gara (Axularren hitza erabiltzekotan).

Gora 1973ko UEU esperantzagarri hura! Luzaz bizi bedi!

Uztaritzeko eta Iruñeko giro mi-resgarria ezagutu eta dastatu dugunok, besterik ezin esan.

Eutsi, beraz. Eta ez etsi!

nebulosak argiturik, adinaren kargak oraindik non diren ere ez, oraintxe gaude onenean. Semaforo Gorrirentzat ere hura beste aro bat izan zen, ez orduan gaitzetoa zelako, baina agian oraingo gorritasun integralagoa da. Orduan astean hirutan pitzen zen eta orain ia egunero. Ontzen ari gaituk! Norbaitek diotsonean orduotik oraingo estilora badagoela alde, poztu egiten da, tristeza bailitzateke, norbera ustez aldaturik, inork ez igartzea. Egunotan ikusiko zenuten Periko Solabarriarena, jubilatua zenean, JARRAiko egin zena. Ez naiz ausartzen hainbeste esaten, ezta figura literario gisa ere. Hura ez dago imitatzerik. Baina EGINi beste hogei urte opa izatea ez da ilusionismoa izango. Garai batean urtebeteko iraupena nekezago sinestuko genuen, orain hogeiokoa baino. Gombidaturik zaudete.